

Karmele Rotaetxe Amusategiren hilberria (1932-2013)

ALTZIBAR, Xabier
Euskaltzain urgazlea

2013ko maiatzaren 1ean utzi gintuen Karmele Rotaetxek, 7 hilabeteko gaixotasun larri eta mingarri baten ondoren. 2011tik bizkarreko minez, biriketako minbizia zuela jakinda heriotzari aurre egin zion, adorez, laurogei eta hainbat urte zituela. Udaberria jaiotzen ikusiko ez zuela esan arren medikuek, heriotzarekin borrokatu zen eta iragarpenek ziotena baino hilabete gehiago iraun zuen, burua beti oso. Azken egunetan Bilboko Guimon klinikan egon zen, ondo zainduta. Senarra –Jose Miguel Rincón–, senitarteko eta lagun ugari izan zituen ondoan.

Maiatzaren 6an Karmeleri azken agurra egiteko bildu ginen Bilbon, Abandoko San Bizente Martiriaren elizan, senitartekoak, lagunak eta Euskaltzaindiko nahiz unibertsitateko jendea, osteka. Karmelek berak aurretiaz zehatz-mehatz banandua zuen euskararen eta gaztelaniaren parte bere hiltzean. Fededuna zen, eliza katolikoaren hierarkiaren jokabidearekin ados ez zen arren. Bizkaiko Derio herriko kanposantuan datza hobiratua.

Karmele oso ezaguna zen Bilbon eta euskararen mundu akademikoan. Zuetariko askok nik baino hobeto ezagutu zenuten alderdi askotan. Hark berak eta Euskaltzaindiak eskatuta, ohore zait haren hilberri txosten hau zuen aurrean irakurtzea. Eskerrak zor dizkiet Karmele zenari berari eta Jose Migel alargunari, eman didaten argitasunengatik; baita Anjel Zelaieta, Xabier Kintana, Lutxi Alberdi, Josune Olabarria, Patxi Goenaga eta Battittu Coyos-i ere, eskaini dizkidaten xehetasun batzuenengatik. Jose Migel Rincón alargunari, gainera, zordun gatazka guztiok Karmeleri emaniko laguntza

Euskera. 2013, 58, 1. 327-342. Bilbo
ISSN 0210-1564

erreal eta babes moralagatik, beti gogorarazten baitzion bere eginkizuna ikertzea zuela, profesional eta euskaldun gisa.

Bilbon jaio zen Karmele, II. Errepublikako urteetan. Aita, Fidel Rotaetxe, administraria zen, Manu Sotaren idazkaria gerraurrean. Aitaita, aitaren partetik, Zeanuriko baserri batekoa zen. Ama, Juanita Amusategi, Enkarterrikoa, irakaslea ogibidez. Oso diziplinatua omen zen ama. Aitabitxi Manu edo Imanol Sota izan zuen, antzerkigile abertzale aipatua eta euskaltzain urgazle izendatua 1957an. Karmelek ahizpa bat izan zuen –duela bost bat urte zendua–, haren partetik bi iloba, eta neba bat, oraindino bizi dena.

Ume zela, Karmelek 1936ko gerra ezagutu zuen Bilbon. Aita errefuxiatuen arduraduna izan zen. Bilbo faxisten eskuetan jausi baino lehen, familiariko guztiek azkenetariko itsasontzi batean alde egin zuten eta Bordele inguruan jarri bizitzen. Han eman zuen Karmelek ume eta gazte-denborako parte bat. Han hasi zen ikasten, eskola publikoan, eta gero batxilergoa egin zuen Bordeleko lizeo batean, frantsesez. Frantziako hezkuntzak kritikoa izaten erakutsi zion, elkarrizketa batean A. Zelaietari adierazi zionez (*Euskaldunon Egunkaria*, Bizkaia, 2001/02/25).

Bilbora itzuli zen nebarekin aitaren etxera, eta ostera ere batxilerra eta Estatu-azterketa edo *errebalida* egin behar izan zituen sei urtez. Batxilerra Unamuno institutuan ikasi zuen, eta *errebalida*, berriz, Valladoliden, eta ez edozelan gero!: 40 ikasletatik 20 aurkeztu eta bik bakarrik gaintitu *errebalida*, bietatik bat Karmele Batxiler ikasketak amaituta, familiari lagundu behar eta unibertsitateko karrera ikasteko dirurik ez zuela-eta, lanean hasi zen. Takigrafia eta mekanografia ikasi eta zuzendaritza-idazkari lanpostua eskuratu zuen General Electrica-n, Bilboko bulego batean, eta gero Etxebarriko Laminaciones en Bandas-en. Langile fina zen, mailaz maila igotzen ari zen, ugazabak poz-pozik ziren harekin. Gero *au pair* egon zen Londresen eta ondoren Gizarte-Laguntzaile karrera –Bilboko Gotzaindegiarena– hasi zen ikasten. Eta oso ondo zebilen, baina azken urtean kanpora bota zuten: moja irakasle batek entzun ei zuen «que no era española». Diktaduraren zapalke-ta dastatuko zuen 1958an edo 1959an ere Larrinagako kartzelan hiru astez, isuna ez ordaintzeagatik: Julen Madariagaren bidaia-bulegoa itxia zela iragartzen zuen kartela ikusita «¡Qué sinvergüenzas!» esan eta inguruan kale-

ko jantziekin zeuden poliziek atxilo eramán. Zorionez, aítak harreman onak zituen eta laster atera zen.

Neska gazte alaiá, festazalea, koketa, apaina eta ederra zen Karmele, begi berde distiratsuekin. Ballet klasikoa ikasten zuen Olaetatarrekin; Lurdes Olaeta lagun mina zuen. Musika klasikoa ere beti izan zuen gogoko. Uda partean, Bakion egoten zen: Madariagarren lagun ziren Rotaetxetarrak, Esther Madariaga lagun mina zuen. Valentzian oporretan zela, Jose Migel ezagutu zuen, geroago haren senarra izango zena. 1957 ingurutsua zen eta 25-26 urte izango zituen Karmelek.

Euskarak eta irakaskuntzak aldatu zuten Karmeleren bizitza. Gurasoak euskaldunak ez izan arren, euskara maite izaten erakutsi zioten. General Electrica-n zegoela hasi zen euskara ikasten Tere Egileor lagunarekin, baina batez ere Xabier Peña izan zen euskara irakatsi eta maitatzen irakatsi ziona. Eskolak hiru aldiz aldatu behar izan zituzten lekuz; poliziak ikasleen fitxak eskatzen zituen, euskaltzale guztiak fitxatuta zeuden. Mendira osterak egiten zituzten eta giro horretan ezagutu zuen Alfontso Irigoien; gero San Anton Orfeoian eta Euskaltzaindiaren egoitzan ere elkar ikusiko zuten, eta lagunak egin ziren. Bizkaiko Muxika herrian ere bi uda eman zituen Karmelek Enbeitatarren etxean, euskara praktikatzén. Aste Santuko oporretan Gernikan izaten zen, han lagunak zituen eta. Karmelek bere ahaleginez ikasi zuen euskara, diktadurapeko urte gaitzetan. Euskaldundu zen buruz eta bihotzez; harrezkero euskararen irakaskuntzan eta ikerkuntzan eman du bizitza osoa, eta horretan langile nekaezina izan da hil arte.

Euskararen etorkizunaz arduratuta bizi izan zen. Ilusio handia jarri zuen euskararen indartzean; Euskal Herriaren burujabetza osoa lortzeko tresnatzat zeukan euskara, eta ardura eza aurpegiratzen zien jeltzaleei; zalantzatik esperantzara igaro zen Estatutuaren ondoren, 1980 inguruan, ikusirik hizkuntza politikaren helburua euskalduntzea zela; geroago, ordea, etsitu samar zegoen, ohartuta inbertsio handiak eginda gero hizkuntzaren ezagutzan aurreratu zela, baina erabilpenean ez. Bestalde, minduta zegoen munduan euskaldunen ospea histua zela ikusirik eta bere burua agertu zuen prentsan hilketen aurka.

* * *

Hogeita hamar bat urte zituela, 1962an Deustuko Unibertsitatean hasi zen Frantses Filologia ikasten eta frantsesa irakasten, eta hamasei urtez jarraitu (1962-1978). Arejita euskaltzainak gogoratu digu lehenago ere eman izan zituela frantseseko eskolak eskolapioetan, 1960-1963 bitartean, J.M. Mokoroaren ordezkotza, eta Mokoroarekin harreman estua izan zuela (*Plazaberri*, 2013/05/03). Frantses Filologia karreraren amaieran, Gradu Azterketa egin, eta lehenengo lizentziaduna eta ikasturte hartan bakarra izan zen Karmele (1967).

Tesina prestatzeko asmotan zela, Saenz de Santamaria jesuitak Aita Coloma jesuitari buruz egiteko proposatu, baina Karmelek nor eta Simone de Beauvoir aukeratu: «Simone de Beauvoir, nobelagile» («Simone de Beauvoir, romancière»). André Fabiani literaturako irakaslea aukeratu zuen zuzendari. Haren bitartez lortu zuen Beauvoir-ekin hitzordua eta buruz buru mintzatu ziren birritan. 1967ko ekaina zen. Simone de Beauvoir-ek zoriondu egin zuen Karmele frantsesetik bikain mintzatzeko zelako, eta oso pozik zen haren lanagatik. Simone de Beauvoir aukeratzea ez zen batere ohikoa garai haietan Hegoaldeko parte honetan, ohikoa ez zen legez emakume batek unibertsitatean ikastea: bost-sei baino ez ziren izango ikasle emakumeak Deustuko Unibertsitatean. Karmelerena izan zen lehenengo tesina Frantses Filologian, eta Bikain kalifikazioa jaso zuen. Bere erabaki ausartarekin Karmelek unibertsitatea aurrerabidean jarri zuen eta erakutsi emakumea ez dela «bigarren sexua».

Izan ere, Karmele feminista zen, errebeldea zelako eta Beauvoir-en eraginagatik; beti defendatu zuen feminismoa. Emakumeak intelektualen foroan agertzea garrantzitsutzat zuen –nahiz horretarako gizona bakoitzak askoz gehiago eskatzen zitzaion–, eta harro zegoen jakintsuekin jendaurrean agertzeaz. Etxahun Iruri pastoralgileari galdetu zion zergatik ez ziren agertzen emakumeak pastoraletan (*Anaitasuna*, 194. zk., 1970-08-30). Tradizioak ez zuen asetzen; aitzitik, garai berriei egokitzea, emakumearen presentzia aldarrikatzen zuen.

Irakaskuntzara bultzatu zuen Aita Cortina jesuitak, baita, agian, amaren etsenpluak, eta bere kontzientziak ere bai: «gure herrian, gaurko egoeran, bakoitzak bere buruari galdetu behar lioke, ea benetako eskubiderik dadukan edozein lanbide edo profesio aukeratzeko. Zeren herriaren etorkizuna-

ri batez ere begiratu bear baitiogu» idatzi zuen *Anaitasuna* aldizkariko artikulatu batean, euskal irakasleen premiaz jardutean (*Anaitasuna*, 213. zk., 1971-06-15). Irakaslearen profesionaltasuna eskatzen zuen.

Euskara irakasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean, Patxi Altunarekin batera: euskarazko lehen eskolak izan ziren, dohainik eta nahi zutenei eskainiak, ikasle zituela Isabel Lertxundi, Juan Manuel Eguiagaray, Hernan Urrutia, eta beste zenbait.

Irakaskuntza, berriz, euskal kulturarekin lotu zuen. Euskal kultura ekin-tzen zalea eta ekintzailea zen. 1968an Bilboko Euskal Jakintzaren Astea–Se-mana Cultural Vasca antolatu zuen, gutxi batzuen laguntzarekin. Diktadurako giro beldurgarri eta itogarri oso garrantzitsua izan zen baimen ofizialak eta dirua lortzea, eta jendea eta hizlari ospetsuak ekartzea. Barandiaran, Aresti, Mitxelena, etab. ekartzea erdietsi zuen; Arestiren hitzaldiko eskandalua gorabehera, arrakastatsua izan zen Bilboko Euskal Jakintzaren Astea. Harrezkero beste leku askotan antolatu ziren halako kultura asteak.

Garai hartan Karmelek ez zuen huts egiten euskal kultura ekitaldietara, aipatu *Anaitasuna* aldizkariko haren kronikak lekuko (1970-1971). Eta orduan bezala, hogeita hamar urte geroago ere ez.

1971n ezkondu zen Garain (Bizkaia) Jose Migel Rincón ekonomialari eta informatika irakaslearekin.

Artean tesia prestatzen ari zen. Karmelek garbi zeukan euskara mintzatuari buruz egin nahi zuela, nahiz eta halako pentsamendurik ez egon inguruko euskalarien artean. Lovaina eta Dakar-eko unibertsitateko irakasle Jean Donneux hizkuntzalariarekin hasi zen inkestak egiten ikasten, Ondarroan. Mitxelena aukeratu zuen zuzendari, 1968an Bilboko Euskal Jakintzaren Astean ezagutu baitzuen. Hamar urtez tesia lantzen jardun zuen; Ondarroarako joan-etorriak ez zituen harrezkero inoiz ahaztuko, hango informatzaile onak ere ez. Tesia Salamancan aurkeztu zuen 1977ko ekainean, «Estudio estructural del euskara de Ondarroa» izenburupean. Bikain cum laude kalifikazioa eman zioten, aho batez.

Ondoren, Martin Mateo errektoreak baimenduta, Bilboko Unibertsitate Autonomoan euskarazko lehenengo eskolak ematen hasi zen. Urte horre-

tan Kazetaritzako Unitate Deletatua sortu zen eta horrela sartu ofizialki euskararen irakaskuntza unibertsitate publikoan, Karmele izanik arduraduna eta koordinatzailea. Bi urte eman zituen horretan. 1979an Euskal Herriko Unibertsitatearen Gasteizko Filologia eta Geografia-Historiako Fakultatea sortzean, hara joan zen, ilusioz beterik, Mitxelenaren onespenez. 1982an irakasle funtzionario eratxikia izateko oposizioak irabazi zituen Madrilen, eta hartara bihurtu zen Linguistika Orokorreko jakintza arloaren hasle.

1983-1984. urteetan Bilbon Filologia Fakultate publikoa sortzeko ahaleginak egin zituen, baina huts egin zuten, proiektu horrek aurkari gehiago eta boteretsuagoak baitzituen politika eta unibertsitate agintarien artean; giroa zakartu zelarik, ez zituen une goxoak bizi izan.

1987an Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra irabazi zuen. Gero, Soziolinguistika ere irakatsi zuen. Gasteizko Filologia Fakultatean ia hogeitun urtean irakatsita gero, 1998an Leioako Zientzia Politikoko lizentzian «Hizkuntza Politika» irakatsi zuen euskaraz eta erdaraz, baita doktoretza-ikastaroak eman ere. 2001. urteaz geroz, irakasle emeritu zelarik, doktoretza-ikastaroak ematen jarraitu zuen Hizkuntza Eskubidez eta Europako Hizkuntza Politikaz.

Karmelek gogoko zuen unibertsitateko giroa. Azken hilabeteetan ere, gaixotasun larria zuela, irrikaz zegoen unibertsitatara joan, jendearekin jardun eta hango saltsa miatzatzeko.

* * *

Karmele ikertzailea izan da batez ere. Guk Eranskinean 4 liburu, 71 ikerketa-artikulu –liburuaren kapituluak barne– eta 9 entziklopedia-artikulu zerrendatu ditugu, prentsako artikuluak alde batera utzirik (ik. Eranskina: Karmele Rotaetxe Amusatagiren Bibliografia). Bere liburu ezagunena tesia da, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa* (L. Zugaza, 1978), eta estrukturalismoaren eskolaren joerako liburu honetan euskara mintzatua aztertu du; geroagoko ikerlan askoren oinarria izan da liburu hori Karmelerentzat. Beste liburu bat ere aipagarria da: *Sociolingüística* (1987). Bere ikerlanak gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz publikatu ditu, hiru hizkuntzen artean oreka bilatuz eta artikulu batzuetan hiru hizkuntzak aldizkatuz; nazioarteko kongresuetan batez ere frantsesa baliatu du. Euskal Herriko aldizkarietan, 8 bat artikulu

argitaratu ditu *Euskeran*, denak euskaraz; *Fontes Linguae Vasconum* 5 eta *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijon* bat edo beste.

Karmeleren ikergai nagusiak euskal hizkuntzalaritza eta soziolinguistika arlokoak izan dira. Zehatzago, honako hauek: ergatiboa eta datiboa; azentua eta doinua; euskararen norma, normatibazioa eta normalizazioa; enklitikoak eta gramatikalizazio prozesuak, eta, hein bat gutxiago, semantika edo dialektologia. Soziolinguistikan: euskararen gizarte hedapena, hizkuntza politika eta plangintza, eta *code switching* edo kode trukitzea. Gai horietan jardun du etengabe hogeita hamar urtez.

Karmelek bere ekarpen nagusizat zeuzkan bi gai: baieztatu izana euskara ez zela hizkuntza flexiboa, eranskaria baizik, eta azpimarratu izana ergatiboaren subjektu funtzioa. Auzi biotan Mitxelenarekin eztabaidak izan zituen. Apaltasunez esan zidan harro zegoela bi ekarpen horiengatik. Gero, azentu-oihartzuna delako hipotesia defendatu izana ere aipatzen zuen.

Haren iritzian, euskarari buruz jakiteko hizkuntzalaritza ezagutu behar da, baita hizkuntzen tipologia ere. Puntu honi dagokionez, haren ustez, euskarak badu bere nortasuna –ikasteko zaila eta korapilatsua da– baina antzekotasun handiak ditu Europako beste hizkuntza batzuekin, ezaugarri komun ugari errepikatzen baitira maila guztietan Europako hizkuntza askotan. Beste iritzi zenbait ere maiz errepikatzen zituen: adib., euskal aditza soildu beharra, errazago ikasteko asmoz, edo arau malguagoak aplikatu beharra (esaterako, *-gaz* soziatibo atzizkia onartzea) batua dela-eta kaltetuena suertatu den bizkaierarentzat.

Aipa ditzagun Karmeleren curriculumaren beste alderdi batzuk. Tesina zenbaiten zuzendaria izan zen Deustuko Unibertsitatean: J. Juaristi, A. Garamendi, M. Rica, M. Diez-Ezkerra, A. Zelaieta eta J.A. Bengoetxearen tesinena, besteak beste. Tesi batzuen epaimahaikoa ere izan zen, adib. Battittu Coyos euskaltzainarena.

Nazioarteko hizkuntzalari-elkarte, kongresu eta proiektuetan parte hartu du. Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle (SILF), Association Internationale de Linguistique Appliquée eta New York Academy of Science-ko kide izan da (Hizkuntzalaritza sailean); baita Espainiako Sociedad

Española de Lingüística-koa eta Kataluniako Grup Català de Sociolingüística-koa ere, orobat elkarte horrek ateratako *Treballs* soziolingüística-aldizkariaren Aholku Batzordekoa.

Euskal Herrian, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiko kide izan da. Euskaltzain urgazle izendatua 1979an, eta ohorezko euskaltzaina 2004an. Euskaltzaindian Euskalariekin Harremanak delako batzordean kontseilari izan da (1981-1983), halaber Dialektologia batzordeko kide (1981-1989), Euskalkien Ikerketa azpibatzailekoa (1989-1995) eta Sustapen batzordeko aholkularia azken sei urteetan (2007-2013). Batez ere Gramatika batzordean jardun izan du hogeita hamaika urtez (1981-2012), eta batzorde horrek argitaratutako zazpi liburutatik lautan txostengile izan da eta beste biren prestaketan ere parte hartu du. Gramatika batzordea sortu baino lehenago ere parte hartu zuen euskara batuaren finkatze aldiko eztabaidetan, adib. Bergarako Biltzarrean (1978).

Europar proiektu zenbaitetan ere partaide izan da: esaterako, European Science Foundation erakundearen Code-Switching programan (1993-1995), edo EUROTYP proiektuan (Europako hizkuntzen tipologia aztertu duena). Eraitza gisa, argitaratutako liburu bietan ere parte hartu du.

Proiektu eta kongresuen kariatara, munduko toki askotan egona da: Parisen berrogei aldiz, sei aldiz Kanadan, behin gutzienez Japonian, Argentinan, Txilen, Kieven, Königsbergen, Singapurren, etab.

Karmelek harreman estuak zituen funtzionalistekin, Martinet-en dizipuluekin: J. Maurais kanadiarra, Christos Clairis greziarra –Karmeleren lagun mina–, Henriette Walter, etab. Karmele bera izan zen Martineten laudatioaren egilea, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) Martinet doktore *honoris causa* izendatu zuenean (1992). Funtzionalistentzat Karmele zen aditua euskara gaietan eta, dirudienez, hari omenaldi bat egitekotan dira Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle elkarteak.

Etxeko unibertsitateetan ere adiskidantza edota lankidetzat harremanak izan zituen askorekin, adib. A. Eguzkitza euskaltzain zenarekin eta Maitena Etxebarria edo Rosa de Diego irakasleekin. 2008an Mendebalde Kultura Alkarteak omenaldia egin zion, besteak beste bizkai-euskararen zalea zelako.

Amaitzeko, hiru zertzeladaz gogoratu nahi ditugu Karmeleren eginak eta hark utzitako ondarea:

Lehenengo, emakume azarri eta behargina izan da, kultura ekintzailea eta irakaskuntzan bidegilea: Frantses Filologiako lehen ikasle lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, lehen euskara irakaslea Deustuko Unibertsitatean eta UPV-EHUn, eta Hizkuntzalaritza Orokorra izeneko jakintza arloaren sortzailea Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean.

Bigarren, ikertzaile emankorra izan da, euskararen azterketari maila zientifikoa eta ikuspegi kritikoa ematen ahalegindu izan dena beti.

Hirugarren, gure hizkuntzaren ordezkari nabarmenatariko bat izan da kanpoko hizkuntzalaritza foroetan hogeita hamar bat urtez. Aldi berean, ikerkuntza eta bizitzako gozamena elkarrekin ezkontzen jakin du, senararekin batera munduan zehar bidaiatzen ibilia baita bazter ederrak ikusten, ikerkuntza-lana bizitzaren atsegintasunarekin uztartuz.

Goian bego.

* * *

ERANSKINA

Karmele Rotaetxe Amusatagiren bibliografia

Liburuak

1978. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.

1986. *Hizkuntza eta gizartea Euskadin*. Zuzendari-koordinatzailea: K. Rotaetxe Amusategi. UPV-EHU, Servicio Editorial / Argitarapen Zerbitzua. Unibertsitate hedakuntzazko koadernoak, 12.

1988. *Sociolingüística*. Madrid: Síntesis.

(Elkarlanean) *Euskal Gramatika: Lehen urratsak*. Euskaltzaindia (Gramatika Bartzordea).

Artikuluak eta liburuen kapituluak

1971. [Rotaetxe, K.–Donneux, L. J.] «Sur un point de morphologie nominale du basque», *Fontes Linguae Vasconum*, 1971, III, 269-290.

1977. «Metodología para verificación de traducciones de una lengua A a una lengua B en situación de diglosia», *Revista Española de Lingüística*, 7, 1: 238-239.

1978. «Pronoms personnels et personnes du discours dans la langue basque», *Actes du Quatrième Colloque International de Linguistique Fonctionnelle*, 244-255. Oviedo.

1978. «L'accent basque (Observations et hypothèses)», *La Linguistique*. Paris: Presses universitaires de France. 14. lib. (1978-2), 55-77.

1978. «Pluraleko ergatibo-adierazleari buruz». Bergara, 1978-IX-7. *Euskera* 23 (1978, 2), 763-766.

1978. «Erakusleen formei buruz». Bergara, 1978-IX-7. *Euskera* 23 (1978, 2), 767-769.

1978. «Lingüística-Lógica: la construcción ergativa vasca», *Revista Española de Lingüística*, 8, 2: 431-445.

1978-1979. «Nominalizadores y complementarizados en euskara», *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, XII-XIII (1978-1979), 247-266.

1979. «Numeral eta aditzen arteko konkordantziak», *Fontes Linguae Vasconum* (1979), 259-267.

1979. «La sobredeclinación como procedimiento de derivación en la lengua vasca», *Revista Española de Lingüística*, 9, 1: 254-256.

1979. «Introducción al problema del euskara en la Universidad», *Jornadas de Bilingüismo* [Peñíscola 1978], 157-167. Universidad de Valencia, I.C.E.

1979. (Elkarlanean) «Planification linguistique et choix de langue», *Actes du Cinquième Colloque International de Linguistique Fonctionnelle*, Ionnina (Grezia), 55-81. Ionninako Unibertsitatea.

1979-1980. «Interpretación de la cantidad silábica en Euskara» [Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach con motivo de sus XXV años de docencia en la Universidad de Oviedo], *Archivum* XXIX-XXX. Universidad de Oviedo.

1980. «L'accent basque–Abstract», *Language and Language Behaviour Abstract*, 13/4, 964. or. San Diego, California.

1980. «Desarrollo de lenguas minoritarias y entorno social», *Actes de Xornaes d'Estiu y Trabayu*, 245-249. Universidad de Oviedo.

1980. «Cultura oficial y lenguas minoritarias», *La problemática del bilingüismo en el Estado español*, 57-65. Bilboko Unibertsitateko I.C.E.

1980. «Ergatiboaren sujetotasunaz» [Arrasate, 1979-XII-21], *Euskera* 25 (1980, 2), 417-424.

1980. «Lekutasunezko formen mugabidea» [Arrasate, 1979-XII-21], *Euskera* 25 (1980, 2), 425-430.

1980. «Euskal prosodiaz» [Donostia, 1980-III-28], *Euskera* 26 (1981, 1), 381-395.

1981. «Linguistique theorique, linguistique appliquée, enseignement du basque», *Iker*, 1, 1981, 465-477. [Euskaltzaindia. Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak–Jornadas Internacionales de Vascólogos–Bascologists International Meetings–Rencontres Internationales de Bascologues. 1980 Gernika-Lumo].

1981. «Un procedimiento de derivación productivo en euskera», *Cuadernos de Filología II*, 2: 147-157. Universidad de Valencia, Facultad de Filología.

1981. «Irakaskuntzaren sistima eta euskara irakaskuntza», *Jakin* 19-20, 43-55. [«Elebitasunaren Auzia Ikastoletan» monografikoa].

1981. «Inférence du sociolinguistique dans le traitement des apports français en basque», *Proceedings 7th. International Colloquium of Functional Linguistics*, 206-211. [St. Andrews, 1-6/09/1980. University of Saint Andrews].

1982. «La morfofonología como método de análisis de una lengua aglutinante» [I. Dialektologi ikastaroa, Deba, 1981-IV-23-26], *Euskera* 26 (1982, 2), 861-872.

1982. «Normatividad y gramaticalidad», *Revista Española de Lingüística*, 12-1: 1-16.

1983. «Pragmática y lingüística aplicada (de la enseñanza de la gramática a la enseñanza del funcionamiento de la lengua)», *Piarres Lafitteri Omenaldia, Iker*, 2 (1983), 559-570.

1983. «Gramáticas filosóficas: Explicaciones de “gramática” en l'Encyclopédie», *Revista Española de Lingüística*, 13-1: 165-166.

1984. «Reconocimiento formal de una clase de déicticos en euskara», *Miscel·lània Sanchis Guarnier* II, 281-287. Emili Casanova (coord.). Universitat de València.

1984. «Interprétation linguistique d'une enquête sociologique», *Actes du 10è. Colloque International de Linguistique Fonctionnelle / International Society of Functional Linguistics*, 267-276. [Université Laval, Québec, 7-13/08/1983].

1984. «Gizarte egoerak eta hizkuntz erregistroak (Social Context and Code Switching)», *The Journal of Basque Studies*, vol. V-2, 1984: 29-37. Fresno, California.

1985. [Rotaetxe, K.–Altzibar, X.] «La crise de la langue basque», *La crise des langues*, 373-381. Québec: Gouvernement du Québec, Conseil de la Langue Française.

1985. «Observaciones sobre semántica y gramática (aintzinako zorra)», *Symbolae Ludivico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Pars Prior, 375-395, UPV-EHU, Vitoria-Gasteiz, Instituto de Ciencias de la Antigüedad.

1985. «Situation social de la langue basque», *Problèmes de Glottodidactique*, 209-225. Université de Haute-Normandie, Rouen. [Symposium International, 20-23/09/1984].

1986. «Grandeza y servidumbre del plurilingüismo», *Plurilingüismo y evolución cultural. Bizkaia XXI. Mendearen aurrean Jardunaldiak–III Jornadas Vizcaya ante el S. XXI–Bizkaia XXI mendearen aurrean Jardunaldiak*, 59-92 [ik. K. Rotaetxeren parte-hartzea ere ondoko eztabaidan, 95-113]. RSBAP–Diputación Foral de Vizcaya–Banco de Bilbao. Bilbao, 1985.

1986. «Bilingüismo y Lingüística Aplicada», *Actas del III Congreso de Lingüística Aplicada*, 291-314. Valencia: Universidad de Valencia–AESLA.

1986. «Komunikazio gaitasuna», *Hizkuntza minorizatuen soziologi Biltzarra / Congreso de Sociología de lenguas minorizadas*, 95-102. Asociación Vasca de Sociólogos. [Getxo, Fadura, Bizkaia, 1984ko urria].

1986. «The place of Linguistics in European Education», *Actas del Convegno Internazionale Lingue, Tecnologie e Unione Europea–Language, Technology and European Education*, 10-23. Mantova (Italia), 1986ko urria.

1987. «L'Aménagement linguistique en Euskadi», *Politique et aménagement linguistiques*, 161-210. J. Maurais (ed.). Québec: Gouvernement de Québec, Conseil de la Langue Française.

1987. «Azentua eta entonazioa: harremanak», *Euskal Ebakeraz II. Jardunaldiak*. [Durango, 1986-V-29], *Euskera* 32 (1987, 1), 107-125; *Euskera* 33 (1988, 1), 195-219.

1988. «Alternance codique dans le contact espagnol et basque», *Langage et Société*, 14-20. [Rencontre Internationale *Contact de langues: quels modèles?* Nice, sept. 1987].

1988. «La norma vasca: codificación y desarrollo», *Revista Española de Lingüística*, 17, 2 (1988), 219-244.

1988. «Approche axiologique et sémantique de quelques temps verbaux basques», *Actes du XIV Colloque International de Linguistique Fonctionnelle / Functional Linguistics*, 127-138 [HelsenYr (Danimarka), uztaila, 1987].

1988. «Competencia comunicativa y Teoría de las Diferencias», *Actas del II Congreso Mundial Vasco. Euskara Biltzarra / Congreso de la Lengua Vasca*, II, 221-228. Vitoria-Gasteiz.

1990. «Microlingüística y Macrolingüística», *Actas del Congreso de la S.E.L. XX Aniversario*, t. II, 1069-1079. Madrid: Gredos.

1991. «Description et valeurs pragmatiques de l'alternance "basque-espagnol"», *Papers for the workshop on Code-Switching and Language Contact: impact and consequences*, 227-250. Strasbourg. [Brussels, 22-24/11/ 1990].

1992. «Lengua, Cultura, Civilización: delimitaciones recíprocas y situación vasca», *XI Congreso de Estudios Vascos: Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*, 64-75. [S. Sebastián / Donostia, 1991].

1992. «Quelques traits typologiques du basque et ergatif», *Interaction entre fonctions actanciennes et sémantique des actants*. Strasbourg: European Science Foundation, 1992, Programme EUROTYP (Working-Paper, Groupe 4).

1992. «André Martinet irakasle Doktorea, UPV-EHUren "Doctor Honoris Causa" izendatzea: Leioa, 1992-10-7», *Euskera* 37 (1992, 3), 1247-1251.

1992. «Hizkuntz sistema eta dialektologia», *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak. Iker-7*, 53-68.

1992. «Principe téléologique, variété de langue et système linguistique», *Actes du XVIII Colloque International de Linguistique Fonctionnelle / International Society of Functional Linguistics*, 117-126. [Praha, 1991/07/12-17].

1992. «Euskara eta Linguistika estrukturalista», *Enseiucarrean*, 8, 1992. Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea.

1993. «Normativisation et normalisation d'une langue: l'expérience basque», *Sprachstandardisierung*, Lüdi, G. (éd.), 77-100. Freiburg (Schweiz): Universitätsverlag Freiburg Schweiz.

1994. «Alternance codique et langue minoritaire», *Langues et sociétés en contact: mélanges offerts à Jean-Claude Corbeil*, 395-408. Publiés par Pierre Martel et Jacques Maurais. Tübingen: Niemeyer.

1996. [Elkarlanean: J. A. Argente Giralt ...et al.] «Lenguaje y sociedad: socio-lingüística», *Elementos de lingüística*, 307-339. C. Martín Vide (ed.). Barcelona: Octaedro.

1996. «Hizkuntz Politika-Plangintzaren helburuak / Objetivos de la Política-Planificación Lingüística», *Iruña eta Euskara Ihardunaldiak / Jornadas Pamplona y Euskera*, 157-168, 385-396. Ayuntamiento de Pamplona / Iruñako Udaletxea.

1997. «Le basque, hier et aujourd'hui—Typologie et évolution», *Cahiers de l'Institut de Linguistique de Louvain*, 889-896.

1998. «Política y planificación lingüística», *III Jornadas de Lingüística: (in memoriam profesor Emilio Alarcos Llorach)*, 95-110. Miguel Casas Gómez (dir.); M^a Tadea Díaz Hormigo (ed.). Universidad de Cádiz, Servicio de Publicaciones.

1998. «Constructions triactanciellles et datif», *Actance et valence dans les langues de l'Europe*, 391-456. Edited by Jack Feuillet. Berlin; New York: Mouton de Gruyter.

1998. «L'actance en basque» *Actance et valence dans les langues de l'Europe*, 849-876. Edited by Jack Feuillet. Berlin; New York: Mouton de Gruyter.

1998. «Structure des formes verbales finies en basque», *Bulletin de la Société Linguistique de Paris*, 93, 1 (1998), 289-322.

1998. «La ABAO con referencia a la Filarmónica de Bilbao, *Bidebarrieta (Anuario de Humanidades y CC. Sociales de Bilbao)*, III Symposium: Bilbao, Musika-Hiria / Bilbao, Ciudad Musical: 289-294.

1999. «Tipología lingüística: dativo y datividad», *Revista Española de Lingüística*, 29, 1 (en.-jun. 1999), 1-33.

1999. «Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas», *Fontes Linguae Vasconum*, XXXI, 80 (enero-abril 1999): 59-71.

2000. «Bilingual Education in the Basque Country», *Proceedings of the 12th World Congress of Applied Linguistics*. [August 1-6/08/2000, Tokyo].

2002. «Apprentissage et usage du basque en Euskadi», *Hommage a Jacques Allières: Romania et Vasconia*, I, 299-316. Sous la direction de Michel Aurnague et Michel Roché. Anglet: Atlantica, 2002.

2002. «Datibo-markazioa», *Erramu boneta: festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, 571-582. UPV-EHU, Argitalpen Zerbitzua. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*. Gehigarriak, 44.

2002. «L'extension de la langue basque: réussites et problèmes», *Actes du Colloque Interantional sur l'Aménagement linguistique*, Université de Tizi-Ouzou—République Algérienne Démocratique et Populaire.

2004. «-(e)ta enklitikoa sailkapen eskalarrean», *Fontes Linguae Vasconum* 95 (urt-ap 2004), 115-139.

2005. «Gramatikalizazio prozesu bat: baina enklitikoa», *Fontes Linguae Vasconum* 98 (urt-apr 2004), 107-117.

2006. «Gramatikalizazioa», *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, 799-816. Beatriz Fernandez & Itziar Laka (arg.).UPV-EHU.

2008. «Lengoaiaren jatorria eta hizkuntzen sailkapenak», *Jean Haritzelharri omenaldia*, *Iker* 21, 578-596.

Entziklopedia artikulua

1981. «Diglosia», *La Gran Enciclopedia del Mundo*, Editorial Durvan, S.A. Bilbao.

1981. «Psicolinguística», *ibid.*

1981. «Sociolingüística», *ibid.*

1982. «Lingüística», *ibid.*

1985. «Pragmática», *ibid.*

1986. «Lengua», *ibid.*

1990. «Linguística: Fonética y Fonología», *ibid.*

1993. «Tipología lingüística», *ibid.*

1993. «Lenguas en contacto», *ibid.*